


## BIOLOGIA eta GEOLOGIA – BIOLOGÍA y GEOLOGÍA

1. Irudi hauek zelula-mota desberdinak adierazten dituzte, aztertu eta jarraian adierazi taulako esaldiak zuzenak ala okerrak diren: **(0,4 p)**



A



B



C

|                                                                                               | Zuzena | Okerra |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------|--------|--------|
| A irudiak izaki zelulabakar prokariotoa adierazten du                                         |        |        |
| A eta C zelula eukariotoak dira material genetikoa nukleo-mintzaz babesturik dutelako         |        |        |
| C irudikoa heterotrofoa da eta bizitzeko behar duen materia organikoa kanpotik hartu behar du |        |        |
| A irudiko zelula heterotrofoa denez ez du fotosintesia egiten                                 |        |        |
| B irudiak bakterio bat adierazten du                                                          |        |        |
| Gure gorputzeko zelulak A motatakoak dira                                                     |        |        |
| Irudiko hiru zelulak gai dira elikatu, ingurunearekin harremanak izan eta ugaltzeko           |        |        |
| C irudiko zelulak amigdalitis moduko infekzioak sor ditzake gure gorputzean                   |        |        |

2. Adierazi taularen eskuineko zutabea zer aparatu edo sistemari dagokion giza-gorputzaren egiturak eta zein bizi-funtziotan hartzen duten parte, nutrizio-funtzioan, harreman-funtzioan ala ugalketa funtzioan: **(0,6 p)**

| Egitura           | Aparatu edo sistema | Bizi-funtzioa |
|-------------------|---------------------|---------------|
| Adibidez: Birikak | Arnas-aparatua      | Nutrizioa     |
| Garuna            |                     |               |
| Umetokia          |                     |               |
| Bihotza           |                     |               |
| Giltzurrunak      |                     |               |
| Urdaila           |                     |               |
| Besoko bizepsa    |                     |               |